

IRITZIA

» zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutik plazazatzen ditu. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK motzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugaldel Kultur Parkea, 30012 Andoain, iritzia@berria.info

Euskaltzaindia eta Txillardegia

Azaroaren 18ko BERRIAN, 3. orrialdean Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegia' Idazlea Ideietan (tinko izeneko artikulua argitaratu da, egile-izenik gabe, eta hor, besteak beste, honako hau esaten da: «1957tik euskaltzain urgazlea da, baina, arrazoi politikoak tarteko, euskaltzain osoa izatea ukatu egin diote beti. Hizkuntzaren akademian hutsik nabarmentzena izan da Txillardegirena».

Adierazpen horren aurrean, euskaltzaina eta gure Hizkuntzaren Akademiako idazkaria naizen aldetik, ondokoa argitu nahi dut:

Lehenengo eta behin, ez dela bidezko, noren eta Euskal Herri osoko erakunde nazional bakarrean aurka maila horretako salaketa bat egiten denean, salatzaileak bere izena ezkaratzea. Zilegi da nor bere iritziak azaltzea, baina beti aurregia emanaz, eta areago norbere esanengatik inor difamatzeko arriskua dagoen.

Bigarrenik, artikulua eragileak kontsulta zitzaieela dioten arazoak dauden materialak, publikoak izateaz gainera, aspaldian argitaraturik daude eta.

Izan ere, Euskaltzaindiaren organo ofiziala den Euskera aldizkarian (XXVI 2. aldia, 1981-1, 178. orr.) honako

hau irakur daiteke: «1980.eko apirilaren 18an, Hondarribiko Udaletxean, eguerdian, J.M. Lojendio euskaltzain oso zenduaren hutsunea betetzeko, hauteskundeak egin zituela Euskaltzaindiak, eta hor J.L. Alvarez Enparantza (A. Irigoyenek, E. Knörrek eta F. Krutwigek aurkeztua) eta P. Altuna (J.M. Satrustegik, A. Zavalak eta P. Lafittek proposatua) izan zirela kandidatuak. Hiru bozketak egin ziren, ondorioak honako hauek izanik: Lehenbizikoan Txillardegik 8 boto, Altunak 6. Bigarren botazioan Txillardegik 9, eta Altunak 6, eta hirugarrenean Txillardegik 8 eta Altunak 7». Beraz, hautatua izateko kandidatu bietako batek ere behar zen 11 botoen kopurua lortu ez arren, argi dago Txillardegia izan zela kasu guztietan horra gehienik hurbildu zena.

Tartean, Iparraldeko euskaltzain ezagun batek ondokoa galdetu zuen, aita irazoz euskaltzaina ere hil berria zela eta, ea hutsune horrekin, kandidatu biak, Txillardegia eta Altuna, batera ezin aukeratu zitezkeen. Ordura arte holakorik inoiz egin ez bazen ere, —haren hutsunea oraindik ofizialki aldarrikatua ez zelako— Akademiaren estatutuen arabera ez zegoen horretarako debekurik, gainerako euskaltzainak, zaldunen arteko tratua eginik, akort bazeuden bederen, eta

hortik zirrikitu berria ireki zen Txillardegia ere euskaltzain izendatzeko. Beraz, ez dago eskubiderik esateko Euskaltzaindiak arrazoi politikoengatik bere baztertu nahi izan zuenik.

Lehen botazioen ondoren, marmar eta funts gabeko zurrumuru eta interpretazio maliziatik ibili ziren eta Txillardegik, lehenbiziko botazio horretan hautatua izan ez zelako minduta, bere burua lehiakidetzatik erretiratu zuen.

Horrez gainera, kazetari ergel batzuek esames horiek kaleratu zituzten, Mitxelena-ren kontra eta, salaketa faltuak eginez. Ondorioz, Txillardegiren aldeko botoa eman zuten euskaltzain ospetsu batzuk biziki haserretu ziren, eta horrezek ekarri zuten Txillardegiren kandidatura berriro aurkezteko gogorik ez izatea. Beraz, hurrengo hilean Patxi Altuna, kandidatu bakarra geldituz, aukeratu zen, eta handik hilabete batzuetara Patxi Ondarra nafarra.

Oraingo honetan ere, Euskaltzaindiak Txillardegiren omenez laster plazaratzeko duen liburua eta beste zenbait ekintza aspaldian pentsaturik daukan abagunean, arriskutan gera daitezke berriaz gipuzkoar idazle eta irakasle miretsi honen aldeko ospakizun akademikoak, begien bistakoa baita, ez zaiola

inori gustatzen, bere borondate onaz egin nahi zuena, jendeak pentsatzea inoren eraginez egiten duenik, azken orduan, ezin bestean eta bestek bultzaturik. Eta entzuteko belarridunak bentzu.

Xabier Kintana Urtiaga
Euskaltzaindiko idazkaria

» 'Nuestra selección'

Ikasturte berriaren berrikuntzen artean, Donostiako autobusetan telebista *moñño* batzuk jarri zituzten, urteroko prezio igoera justifikatzeko edo...

Bada, nire iritzia bestelakoa da, izan ere, bertan plazaratzen denak, espainiarrek gabela barneratzeko baino ez du balio. Hizkuntza nagusia gaztelania da, eta euskara, zertzelada gutxi batzuekin, erdal elebakartasuna estaltze aldera agertzen da.

Astelehenean, «Nuestra selección» zioen, Espainiako futbol selekzioak jokalariek jokatzekoak ziren partiduen berri ematen zuten irudien oinak; eta nik pentsatu nuen: «¡La tuya!»

Autobusetan gora-behera ibiltzen direnek, eguneroko ogia dute mezu sublimen jazarpen hau. Atera ondorioak.

Beñat Ralla Yusta
Donostia

» larrepetit

Familia nuklearra



XUXUE APAOLAZA

Kristinak eta Martinek baserri batean izan zuten haurra. Haurrena Kristinaren kontua izan zen. Aita Martin izatea Kristinak zituen lagun guztien artean aspergarriena bera izatearen ondorioa da. Kristinak erraz irudikatu zuen Martin senar eta aita zintzoaren paperean eta Martin ez zen inoiz kezatu.

Agus eta Mireiak haurrik izan gabe jarraitzen zuten. Ez zuten Martin eta Kristinaren haurra ezagutzen landa giroaren oso zaleak ez zirenez. Egun pasa joan ziren haurrak hiru bat urte zituenen. Kristinak zoriontsua ematen zuen. Bi muxu. Martinek ez hain beste. Beste bi muxu.

Mireiak eguna haurrari begira pasa zuen. Postretarako gazta tarta atera zuten negar malko batek ihes egin zion haurraren irribarre ile horiari begira.

«Barkatu Martin baina Martintxok Agusen begiak ditu, eta ezpainak, eta irribarre eta dena! Nora begira bizi zara!»

Martin barrez hasi zen. Negarrez hasi zen. Mireiari galdetu zion ea ez eskubide zuten inork esaten ez bazuen inori inporta ez zitzaion detaile txatu bat aieratuz bere oreka emozionala berriro kolokan jartzeko. Ez zegoela berriro emazte eta haurrik gabe munduari aurre egiteko prest. Horrelako gauzak esaten jarraitzen bazuen, gutxienez, berarekin ezkondu beharko zuela. Bere gezurreko oreka desegin behar bazuen egiazkoren baten truke izan zedila bederen.

» galde-eskeak



JOSE LUIS ALVAREZ
ENPARANTZA,
TXILLARDEGI
IDAZLEA

Erradikala izatea da zeure buruaz gehien errepikatu duzun ezaugarria. Zer da zuretzat erradikal izatea, eta zertan zara erradikal?

Katixa Lasa

Erradikalitasuna. Gaur egun, eskuinaren eraginez, kutsu txarra hartu duen hitza. Hizkera arruntez erradikalak baita, ameskeria eta estremismo inoxoa. Hots, etimologiaz, eta berez, arazoak aztertu, eta axalean gelditu beharrean, erroetaraino joatea eskatzen du erradikalitasunak. Euskaraz, hitz batez, *sustraitasuna* itzuli behar genuke agian; eta "erradikal" en ordeaz sustraizale erabili. Jean Paul Sartre filosofoak eskatu ohi zuen hori Ezkerria aztertzerakoan: «*Radicalité, toujours radicalité*». Alegia, sasi-soluzio eta ikuskera merkeen aurka, arazoan erroetan beretan funtsatuz pentsatu eta jokatu behar.

» www.berria.info

Batasunaren ekarpena baliagarria iruditzen zaizu bakea lortzeko?

BAI	% 87
EZ	% 13

Ongietorriak izan bitez bakea lortzeko balio izan dezaketen edozein proposamen. Berdin dit Ibarretzek, Batasunak, EAK, Aralarrek edo Iturgaitzek egina bada ere. Ez al du betidanik esan lehendakariak, arazoak hitz eginez konpontzen direla? baita Zapaterok ere; beraz, has zaitezte hitz egiten. ① Ongietorri

Gora, oraindik hasi ez, baina badatorrela esperodudan bake prozesua! ① Gora bakea

Orokorrean iruditu zait Batasunaren ekimena izan daitekeela errendizio motz bat. Oso ongi dago esatea baztertu behar dela indarkeria, baina ematen du hori bakarrik dagoela Euskal Herrian. Ni ez naiz gauza itor epaitzeko baina zerbait eskatu baino lehenago uste dut bakoitzak ikusi beharko duela zer eman ahal duen. ① Bost axola

» hitz beste

Munduaren ipurdia

ANJEL LERTXUNDI

Zerbait *urruti* edo *baztertua* edo *sokoan* dagoela adierazteko, *munduaren ipurdian* dagoela esan ohi dugu. Manuel Rivas idazleak dioenez, Galizia omen da munduaren ipurdia, urruti egotez gainera, baztertua baitago. Baina espresio bera baliatzen dugu izugarrikeriaren lurraldea izendatzeko ere: *anus mundi* edo munduaren ipurdia deitu zion Primo Levi idazleak Auschwitz. Motiboak zituen horretarako, lau urte egin baitzituen bertan. Lobo Antunes idazle portugaldarrak, berriz, Angolari deitu zion *munduaren ipurdia* izen bereko nobela batean. Angolako gerran dabilen euskaldun mertzenario ziniko bat ere ageri da bertan: «euskalduna naiz, eta Francisco Franco kabroien lagun mina».

Munduaren ipurdia (izugarrikeria) ez dago beti munduaren ipurdian (urruti). Geurekin darماغu, geurea da, baina ez dugu ikusten. Ikusten duguna, obramendua da.